

2009ko abuztuan bidaiarien sarrerak % 2 gehitu dira

Abuztuan igarotako gau kopurua % 5 gehitu da

Eustaten datuen arabera, 2009ko abuztuan 225.929 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 4.000 gehiagok; horrenbestez, % 2ko gehikuntza izan da. Bidaiarien sarrerak % 5 gehitu dira Araban eta Gipuzkoan % 3; Bizkaian, aldiz, sarrera kopurua berdin mantendu da (% 0) aurreko urteko abuztuko datuekin erkatuta.

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak % 10eko aldaketa positiboa izan du eta atzeritik etorritakoenak % 9 egin du behera, aurreko urteko hilabete beraren aldean. Hiru lurraldeetan gehitu da estatutik etorritako bidaiarien kopurua: Araban % 9, Bizkaian % 14 eta Gipuzkoan % 7. Atzeritik etorritako bidaiarien kopurua berdin mantendu da Araban, baina Bizkaian (-% 14) eta Gipuzkoan (-% 3) kopuru horrek behera egin du.

Estatutik etorritako bidaiari guztiak kontuan hartuta, oro har autonomia-erkidego ia guztietakoen kopurua gehitu da; hala ere, Kataluniatik, Madrildik, Andaluziatik, Valentziako Erkidegotik eta Kantabriatik etorritakoen kopurua beste batzuetan baino gehiago gehitu da. Atzeritarren artean kopuruak oro har behera egin du, batez ere Italian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Alemanian. Iberoamerikatik, AEB-Kanadatik, Belgikatik eta Japoniatik etorritako bidaiari kopurua, aldiz, gehitu egin da.

2009ko abuztuan 484.696 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko abuztuaren aldean, igaro dituzten gauen kopurua % 5 gehitu da, guztira 22.000 gautik gora gehiago igaro baitituzte. Igarotako gau kopuruak urte batetik bestera bilakaera positiboa izan du hiru lurraldeetan: Araban % 9 gehitu da kopuru hori, Bizkaian % 3 eta Gipuzkoan % 5.

Bidaiarien batez besteko egonaldia, iazko abuztuko 2,09 egunetik aurtengo abuztuko 2,15 egunera luzatu da Euskal AE osoa aintzat hartuta. Araban eta Bizkaian % 3 gehitu da eta Gipuzkoan % 2. Beste modu batera esanda, 2009ko abuztuan Araban batez beste igarotako egun kopurua 1,89 egun izan da, Bizkaian 2,02 egun eta Gipuzkoan 2,36 egun.

Euskal AE osoan, plazen okupazio maila ia berdin mantendu da: aurreko urteko abuztuan % 61,59koa izan zen eta aurtengo abuztuan % 61,44koa. Araban % 2 jaitsi da okupazioa, % 44,25ean geratuz eta Bizkaian % 1 jaitsi da, % 57,78an geratuz. Gipuzkoan izan du plazen okupazio mailarik handiena, % 72,93koa, % 1 gehitu delako. Logelen okupazio maila ia berdin geratu da Euskal AE osoan.

Nekazaritza-turismoko establezimenduak: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 5) eta gaualdiak mantendu egin dira (% 0)

Joan den abuztuan 15.716 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, aurreko urteko hilabete berean baino % 5 gehiagok. Baina hiru lurraldeek ez dute portaera homogeneousia eduki. Araban % 14 gutxitu dira sarrerak; baina Bizkaian % 13 gehitu dira eta Gipuzkoan % 4. Estatutik eta atzeritik etorritako bisitari kopuruek portaera positiboa izan dute: % 3 eta % 11 gehitu dira kopuru horiek hurrenez

hurren Euskal Autonomia Erkidego osoan. Alabaina, Araban bi multzo horien kopuruek behera egin dute: estatutik etorritakoen kopurua % 13 eta atzeritik etorritakoena % 20. Bizkaian estatutik eta atzeritik etorritako bidaiarien kopuruak gehitu egin dira (% 15 eta % 7 hurrenez hurren), baita Gipuzkoatik etorritakoenak ere (% 1 eta % 25 hurrenez hurren).

Euskal AEko nekazaritza-turismoetan guztira 69.800 gau igaro dituzte abuztuan, ia aurreko urteko kopuru bera (% 0). Urte batetik besterako hazkunde tasak Araban negatiboak izan dira (-% 3), Bizkaian positiboak (% 4) eta Gipuzkoan igarotako gau kopuruak bilakaera negatiboa izan du (-% 22).

Bidaiarien batez besteko egonaldia laburtu egin da Euskal AE osoan, 2008ko abuztuko batezbestekoaren aldean. Aurreko urtean 4,65 egun ziren eta aurtengo abuztuan 4,44 izan dira. Araban batez besteko egonaldia gehitu da, baina Bizkaian eta Gipuzkoan egonaldi horrek behera egin du.

Plazen okupazio maila % 58,9koa izan da, hau da, aurreko urteko aldi beraren aldean % 8 txikiagoa. Beherapen hori hiru lurraldeetan eman da: Araban % 14 txikiagoa izan da, Gipuzkoan % 9 txikiagoa eta Bizkaian % 4 txikiagoa. Logelen okupazio mailak ere egin du behera Euskal AEn, % 7.

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	08 2009	%	08 2008	%	Δ %	08 2009	%	08 2008	%	Δ %	08 2009	%	08 2008	%	Δ %	08 2009	%	08 2008	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	484.696	100	462.483	100	5	54.749	100	50.409	100	9	210.320	100	203.416	100	3	219.627	100	208.658	100	5
Estatukoak	320.267	66	284.372	61	13	40.081	73	35.975	71	11	129.720	62	110.488	54	17	150.466	69	137.909	66	9
Atzerrikoak	164.429	34	178.111	39	-8	14.668	27	14.434	29	2	80.600	38	92.928	46	-13	69.161	31	70.749	34	-2
Hiriburua	283.542	58	261.633	57	8	34.691	63	33.919	67	2	131.936	63	121.719	60	8	116.915	53	105.995	51	10
Litoral	74.457	15	70.598	15	5	-	-	-	-	-	27.403	13	24.428	12	12	47.054	21	46.170	22	2
Barnealdea	126.697	26	130.252	28	-3	20.058	37	16.490	33	22	50.981	24	57.269	28	-11	55.658	25	56.493	27	-1
BIDAIA-RIEN SARRERAK	225.929	100	221.848	100	2	28.964	100	27.492	100	5	103.981	100	103.925	100	0	92.984	100	90.431	100	3
Estatukoak	137.733	61	125.389	57	10	18.909	65	17.413	63	9	60.718	58	53.423	51	14	58.106	62	54.553	60	7
Atzerrikoak	88.196	39	96.459	43	-9	10.055	35	10.079	37	0	43.263	42	50.502	49	-14	34.878	38	35.878	40	-3
Hiriburua	130.589	58	124.647	56	5	18.713	65	18.044	66	4	65.122	63	60.585	58	7	46.754	50	46.018	51	2
Litoral	28.123	12	28.032	13	0	-	-	-	-	-	11.297	11	10.584	10	7	16.826	18	17.448	19	-4
Barnealdea	67.217	30	69.169	31	-3	10.251	35	9.448	34	8	27.562	27	32.756	32	-16	29.404	32	26.965	30	9
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,15		2,09		3	1,89		1,83		3	2,02		1,96		3	2,36		2,31		2
BETETZE-MAILA PLAZAKA	61,44		61,59		0	44,25		44,94		-2	57,78		58,22		-1	72,93		72,07		1
Hiriburua	65,44		63,87		2	43,73		46,84		-7	62,84		59,90		5	81,21		78,98		3
Litoral	75,36		73,77		2	-		-		-	67,17		64,48		4	81,13		79,86		2
Barnealdea	49,34		53,04		-7	45,18		41,49		9	45,02		52,89		-15	56,12		57,91		-3
BETETZE-MAILA GELAKA	65,52		65,21		0	46,54		48,03		-3	62,91		62,03		1	77,71		76,69		1
Hiriburua	69,98		68,33		2	47,35		51,99		-9	68,03		64,44		6	86,84		85,10		2
Litoral	81,40		76,66		6	-		-		-	72,07		69,40		4	88,65		81,29		9
Barnealdea	52,58		56,12		-6	45,05		40,13		12	50,40		55,64		-9	58,87		63,33		-7
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	69.800	100	69.888	100	0	8.326	100	8.580	100	-3	23.051	100	22.230	100	4	38.423	100	39.078	100	-2
Estatukoak	58.146	83	58.324	83	0	6.980	84	7.850	91	-11	17.262	75	16.997	76	2	33.904	88	33.477	86	1
Atzerrikoak	11.654	17	11.564	17	1	1.346	16	730	9	84	5.789	25	5.233	24	11	4.519	12	5.601	14	-19
BIDAIA-RIEN SARRERAK	15.716	100	15.032	100	5	1.958	100	2.272	100	-14	5.783	100	5.113	100	13	7.975	100	7.647	100	4
Estatukoak	12.892	82	12.498	83	3	1.731	88	1.989	88	-13	4.512	78	3.922	77	15	6.649	83	6.587	86	1
Atzerrikoak	2.824	18	2.534	17	11	227	12	283	12	-20	1.271	22	1.191	23	7	1.326	17	1.060	14	25
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	4,44		4,65		-5	4,25		3,78		12	3,99		4,35		-8	4,82		5,11		-6
BETETZE-MAILA PLAZAKA	58,91		64,23		-8	36,10		41,75		-14	58,00		60,21		-4	69,01		76,12		-9
BETETZE-MAILA GELAKA	62,68		67,40		-7	38,51		44,81		-14	59,77		62,81		-5	75,15		80,41		-7

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Nerea Linaza Diarce

Tel.: +34-945-01 75 05 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu bankua: www.eustat.es/bancopx/euskaral/indice.asp